



**ERRETERIAKO
DIRULAGUNTZEN
ESTRATEGIKOA: 2020-2023 URTEAK**

**UDALEKO
PLAN**

**PLAN ESTRATÉGICO DE
SUBVENCIONES DEL AYUNTAMIENTO
DE ERRETERIA: AÑOS 2020-2023**

ATARIKOA

Sektore publikoko finantza-jarduera zati handi bat diru-laguntzen bidez bideratzen da, era horretan, finantza-laguntzako neurrien bitartez, erakunde publikoen edo pribatuen eskabide sozial eta ekonomikoei erantzutearren.

Diru-laguntzen Lege Orokorrak zuzentzen duen oinarrietako bat, Aurrekontuko Egonkortasun Legearen oinarrietatik hartua dena, gardentasunaren da.

Gardentasun handiagoak, legean eratzten diren tresna ugariekin batera, zuzenean eragingarritasun eta eraginkortasun mailak igotzen ditu diruz lagundu daitekeen gastu publikoaren kudeaketan. Horren haritik, diru-laguntzen gaineko informazio gehiago izateak berekin ekarriko du merkatuari eragin diezazkioketen desitxuratuak eta interferentziak kentzea, eta, horrez gain, Administrazio publiko guztien jarduketan osagarritasun eta koherentzia bideratuko dituzte edozein motatako gainjartze saihesteko.

Eraginkortasuna hobetzeko lerro honetan, Legeak era berean ezartzen du beharrezkoa dela diru-laguntzen gaineko plan estrategikoa zehaztea. Planak lortu nahi diren helburuen eta ondorioen arteko lotura ezarriko du, aurreikusi daitezkeen kostuekin eta finantzazio iturriekin batera, diru-laguntzen bitartez bete beharreko premia publikoak egokitzearren baliabide eskuragarrien aurreikuspenekin, hura sortu baino lehenago eta urte anitzeko eran.

Horregatik, Udal honek bere Diru-laguntzen Plan Estrategikoa 2020-2023 urteetarako osatu du, azaroaren 17ko 38/2003 Legeak, Diru-laguntzei buruzkoa denak, 8.1 artikuluan ezarritakoa betetzeko. Urte anitzeko Diru-laguntzen Plan Estrategiko bat osatu da, bertan jasoz datozen urteetan Erreterriako Udalak eman beharreko diru-laguntzen lerro estrategikoak.

PREÁMBULO

Una parte importante de la actividad financiera del sector público se canaliza a través de subvenciones, con el objeto de dar respuesta, con medidas de apoyo financiero, a demandas sociales y económicas y entidades públicas o privadas.

Uno de los principios que rige la Ley General de Subvenciones, inspirado en los principios de la Ley de Estabilidad Presupuestaria, es el de la transparencia.

Esta mayor transparencia, junto con la gran variedad de instrumentos que se articulan en la ley, redundan de forma directa en un incremento de los niveles de eficiencia y eficacia en la gestión del gasto público subvencional. En este sentido, una mayor información acerca de las subvenciones hará posible eliminar distorsiones e interferencias que pudieran afectar al mercado, además de facilitar la complementariedad y coherencia de las actuaciones de las distintas Administraciones públicas evitando cualquier tipo de solapamiento.

En esta línea de mejora de la eficacia, la ley establece igualmente la necesidad de elaborar un plan estratégico de subvenciones, que introduzca una conexión entre los objetivos y efectos que se pretenden conseguir, con los costes previsibles y sus fuentes de financiación, con el objeto de adecuar las necesidades públicas a cubrir a través de las subvenciones con las previsiones de recursos disponibles, con carácter previo a su nacimiento y de forma plurianual.

Por ello, este Ayuntamiento ha formulado su Plan Estratégico de Subvenciones para los años 2020-2023, dando cumplimiento a lo dispuesto en el artículo 8.1 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, donde se recogen las líneas estratégicas de las subvenciones a conceder por el Ayuntamiento de Erreterria en los próximos años.

**I KAPITULUA:****XEDAPEN OROKORRAK****1. artikulua**

Udal honek 2020-2023 urteetarako diru-laguntzak ezartzea Plan honetan aurreikusitakoari egokituko zaio:

2. artikulua

Plan honetan aurreikusitako diru-laguntzen ezarpen eragingarriak berekin ekarriko du udal aurrekontuetan dagozkion esleipenak sartzera eta deialdiak, hitzarmenak, edo emakida arautzen duten akordioak, onartzea.

3. artikulua

Diru-laguntzak ezartzea aurrekontu-egonkortasuneko helburuak betetzeak baldintzatuko du, eta, horregatik onartuko diren aurrekontu-esleipenak, oinarri arautzaileak eta emakida deialdiak unean-unean egokituko zaizkie helburu horiei.

4. artikulua

Diru-laguntzen Plan Estrategikoa onartzeak ez dakar berekin inolako eskubiderik sortzea onuradun izan daitezkeen pertsonen alde. Izan ere, horiek ezingo dute inolako kalte-ordainik edo konpentsaziorik eskatu plana gauzatzen ez bada bere baldintza horietan.

II KAPITULUA:**PERTSONA ONURADUNAK****5. artikulua**

Errenteriako Udalak diru-laguntzak emango ditu, lehiaketa edo zuzeneko emakidaren bidez, erabilera publikoko edo interes sozialeko jarduerak sustatzeko pertsona, elkarte edo entitate pribatuen alde, edo tokiko eskumenari egotzitako xede publikoak lortzea bultzatzeko.

CAPÍTULO I:**DISPOSICIONES GENERALES****Artículo 1**

El establecimiento de subvenciones por este Ayuntamiento durante los años 2020-2023 se ajustará a lo previsto en este plan.

Artículo 2

El establecimiento efectivo de las subvenciones previstas en este Plan requerirá la inclusión de las consignaciones correspondientes en los presupuestos municipales, y la aprobación de las convocatorias, convenios, o acuerdos que contengan las bases reguladoras de su concesión.

Artículo 3

El establecimiento de subvenciones queda supeditado al cumplimiento de los objetivos de estabilidad presupuestaria, por lo que las consignaciones presupuestarias que se aprueben, las bases reguladoras y las convocatorias de su concesión se acomodarán en cada momento a dichos objetivos.

Artículo 4

La aprobación del Plan Estratégico de Subvenciones no supone la generación de derecho alguno en favor de las personas potenciales beneficiarias, que no podrán exigir indemnización o compensación alguna en el caso de que el plan no se lleve a la práctica en sus propios términos.

CAPÍTULO II:**PERSONAS BENEFICIARIAS****Artículo 5**

El Ayuntamiento de Errenteria concederá subvenciones, mediante concurrencia competitiva o mediante concesión directa, a favor de personas, asociaciones o entidades privadas con la finalidad de fomentar la realización de actividades de utilidad pública o interés social, o para promover la consecución de fines públicos atribuidos a la competencia local.



III KAPITULUA: OINARRI OROKORRAK

6. artikulua

Plan horren printzipio orokorrak dira, Errenteriako Udalak 2020-2023an eman beharreko diru-laguntzentzat, honako hauek:

- Publizitatea eta lehiaketarik gabeko prozedura alde aurreko deialdiaren bidez. Bertan objektibotasuna, gardentasuna, publizitatea, lehiaketa eta berdintasuna bermatuko dira fondo publikoak banatzerakoan, baina, zuzeneko emakida egin ahalko da, aplikatu beharreko arauan ezarritakoaren arabera. Nolanahi ere, aurretik beharrezko aurrekontuko esleipena izan beharko da.

- Deialdian aurretik ezarritako irizpideen arabeko emakida izango da, onuradun izan daitezkeen pertsonen irizpideak aurretik ezagutzen dituztela bermatzearen.

- Ezarritako helburuak eraginkortasunez beteko dira eta baliabide publikoak eragingarritasunez esleituko dira, eta kuantitatiboki eta kualitatiboki justifikatu beharko dira.

- Entitate eskatzaileen helburuen kontrol eta analisisa berdintasun eta bazterkeria eza printzipioei . egokituko zaizkie diruz lagundu beharreko jardueretan.

- Era espezifikoan, etengabe egiaztatuko da plan estrategikoaren egokitasuna, ondorengo eran:

. * Plana justifikatzea baldintza sozialen arabera.

. * Artatzen diren herritarren beharrak.

. * Finantza-gaitasuna.

. * Udalaren eskumena alor horretan.

IV KAPITULUA DIRU-LAGUNTZAK ZEIN ALORRETAN EZARRIKO DIREN ETA PLANAREN EDUKIA.

7. artikulua

Errenteriako Udalak 2020-2023an zehar diru-laguntzak honako alorretan ezarriko ditu:

CAPITULO III: PRINCIPIOS GENERALES

Artículo 6

Son principios generales de este Plan, para las subvenciones a conceder por el Ayuntamiento de Errenteria en los años 2020-2023, los siguientes:

- Publicidad y libre concurrencia mediante convocatoria previa en la que se garantice la objetividad, transparencia, publicidad, concurrencia e igualdad en la distribución de los fondos públicos, sin perjuicio de la posible concesión directa, de conformidad con lo establecido en la norma aplicable. En todo caso, se deberá contar con la debida consignación presupuestaria previa.

- Concesión conforme a los criterios objetivos previamente establecidos en la convocatoria a fin de garantizar el conocimiento previo de los mismos por las personas potenciales beneficiarias.

- Eficacia en el cumplimiento de los objetivos marcados y eficiencia en la asignación de recursos públicos, debiéndose justificar cuantitativa y cualitativamente.

- Control y análisis de la adecuación de los fines de las entidades solicitantes a los principios de igualdad y no discriminación en el ejercicio de las actividades subvencionadas.

- De forma específica, verificar de forma constante la pertinencia del plan estratégico, de la siguiente forma:

* Justificación del plan en términos sociales.

* Necesidades de la ciudadanía a las que se atiende.

* Capacidad financiera.

* Competencia municipal en la materia.

CAPITULO IV MATERIAS EN LAS QUE SE ESTABLECERÁN SUBVENCIONES Y CONTENIDO DEL PLAN

Artículo 7

El Ayuntamiento de Errenteria durante los años 2020-2023 establecerá subvenciones en las siguientes materias:



- Garapen ekonomikoa
- Hirigintza
- Ingurumena
- Hezkuntza
- Gazteria
- Gizarte Zerbitzuak
- Kultura
- Udal hizkuntza politika
- Musika
- Berdintasuna.
- Aniztasunerako kultura eta garapenerako lankidetzak
- Kirolak
- Idazkaritza
- Artxiboa eta argitalpenak.

8. artikulua

Plan honetan aurreikusitako diru-laguntza emakidak honako hauek ditu eranskin bakoitzean:

- Diru-laguntzaren xedeko programa.
- Zein hartzaile bideratzen zaion.
- Lortu nahi diren helburuak eta ondorioak.
- Ezarri beharreko emakida modalitatea.
- Aurreikusitako gastu ekonomikoa.
- Finantzatzeko aurreikusitako aurrekontuko partida, urte bakoitzeko aurrekontu-ekitaldia beharrezko epe gisa hartuta aurreikusitako helburuak lortzeko. Nolanahi ere, geroago denboran luzatu ahalko dira.

9. artikulua

Plan honen egituraren eranskin adina dirulaguntzak kudeatzeko udal sail/azpi-sail eta patronatu dago.

Plan hau egiteko aintzat hartu da 2016-2019ko dirulaguntzen udal Plan Estrategikoaren balorazioa.

V KAPITULUA **DIRUZ LAGUNDUITAKO PROGRAMAK** **KONTROLATZEA**

10. artikulua

Ogasuneko Zinegotzi Delegatuak Plan hau betetzen dela kontrolatuko du iraunaldian zehar.

- Desarrollo económico
- Urbanismo
- Medio Ambiente
- Educación
- Juventud
- Servicios Sociales
- Cultura
- Política lingüística municipal
- Música
- Igualdad
- Cultura de la diversidad y cooperación al desarrollo.
- Deportes
- Secretaría
- Archivo y publicaciones

Artículo 8

La concesión de subvenciones previstas en este Plan contiene en cada uno de sus anexos:

- El programa objeto de subvención.
- Los destinatarios a los que va dirigido.
- Los objetivos y efectos que se pretenden alcanzar.
- La modalidad de concesión aplicable.
- El coste económico previsible.
- La partida presupuestaria prevista para su financiación, considerando el ejercicio presupuestario de cada año como plazo necesario para la consecución de los objetivos previstos, sin perjuicio de que posteriormente puedan prolongarse los mismos en el tiempo

Artículo 9

Este plan se estructura en tantos anexos como áreas/subáreas y patronatos municipales gestores de subvenciones.

Para la elaboración de este Plan se ha tenido en cuenta la valoración del Plan Estratégico de Subvenciones del ayuntamiento de los años 2016-2019.

CAPÍTULO V: **CONTROL DE LOS PROGRAMAS** **SUBVENCIONADOS**

Artículo 10

La Concejala Delegada de Hacienda efectuará el control del cumplimiento del presente Plan durante su período de vigencia.



Planaren iraunaldia amaitutakoan Ogasuneko Zinegotzi Delegatuak Antolaketa Batzordean memoria bat aurkeztu beharko du. Bertan gutxienez jasoko da Planaren betetze maila, diru-laguntzak ematearen eraginkortasuna eta eragingarritasuna, helburuak eta nahi izandako eraginak lortzeko, eta ondorioak, eta horiekin batera hurrengo Diru-laguntzen Plan Estrategikoa lantzeko iradokizun proposamenak.

Helburu horretarako, udal sail/azpi-sail bakoitzeko arduradun teknikoek Planaren iraunaldian zehar azpi-sailak kudeatutako diru-laguntzari buruzko txostena emango dute, helburuak eta nahi izandako eraginak lortzeari dagokionez.

Errenteria, 2019ko urriaren 30a

Finalizada la vigencia del Plan la Concejala Delegada de Hacienda deberá presentar ante la Comisión de Organización una memoria en la que contemple al menos, el grado de cumplimiento del Plan, la eficacia y la eficiencia del otorgamiento de subvenciones, en la consecución de los objetivos y efectos pretendidos, y conclusiones, con propuesta de sugerencias para la elaboración del siguiente Plan Estratégico de Subvenciones.

A tal efecto, los responsables técnicos de cada área/subárea municipal emitirán informe sobre las subvenciones gestionadas por la subárea durante el periodo de vigencia del plan, en relación a la consecución de los objetivos y efectos pretendidos.

Errenteria, 30 de octubre de 2019



DIRU-LAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA: 2020-2023	PLAN ESTRATÉGICO DE SUBVENCIONES: 2020-2023
SAILA / AZPISAILA: OGASUNA ETA GARAPEN EKONOMIKOA / GARAPEN EKONOMIKOA ÁREA/SUBÁREA: HACIENDA Y DESARROLLO ECONÓMICO / DESARROLLO ECONÓMICO	

PROGRAMA:	ERRENKOALDE HITZARMENA CONVENIO ERRENKOALDEA
ONURADUNA: BENEFICIARIO/A	ERRENKOALDE ELKARTEA
HELBURUAK: OBJETIVOS	Errenteriako merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuak sendotzea Revitalizar el comercio, la restauración y los servicios.
ESLEIPEN MODUA: MODALIDAD CONCESIÓN	Dirulaguntza izenduna Subvención nominal
KOPURUA: IMPORTE:	10.000,00 €
PARTIDA:	1 0320.481.01.431.00

PROGRAMA:	SUBIRAUTZA TEKNOLOGIKOA SOBERANÍA TECNOLÓGICA
ONURADUNA: BENEFICIARIO/A	UDAKO EUSKAL UNIBERTSITATEA UNIVERSIDAD VASCA DE VERANO (UEU)
HELBURUAK: OBJETIVOS	Errenteriako eragileekin batera Humanitate Digitalen inguruan ekonomia sozialaren aldeko lanketa egitea, ekintzailtza kolektiboa eta kooperatiboa ardatz harturik. Trabajar dentro de la Humanidad Digital junto a los agentes dinamizadores de Errenteria a favor de la economía social tomando como eje el emprendizaje colaborativo y cooperativo.
ESLEIPEN MODUA: MODALIDAD CONCESIÓN	Dirulaguntza izenduna Subvención nominativa
KOPURUA: IMPORTE:	20.000,00 €
PARTIDA:	1 0320.481.01.439.00

PROGRAMA:	Alarma-aldian eskatutako prestaziorik gabeko kontziliazio-baimenetarako laguntzak Ayudas a los permisos de conciliación sin prestación solicitados durante el período de alarma
ONURADUNA: BENEFICIARIO/A	Adingabeak edota mendekotasuna duten pertsonak zaintzeko kontraprestaziorik gabeko kontziliazio-baimenak dituzten pertsonak, baldin eta alarma-aldian eskatu badira eta familia-unitateek diru-sarrera garbi hauek gainditzen ez badituzte: - 30.000tik gora eta seme-alaba 1 - 35.000tik gora eta 2 seme-alaba - 40.000€tik gora eta 3 seme-alaba edo gehiago Aquellas personas con permisos de conciliación sin contraprestaciones



	para el cuidado de menores y/o personas dependientes solicitados durante el periodo de alarma, cuyas unidades familiares no superen unos ingresos netos de: - Superiores a 30.000 € y tengan 1 hij@. - Superiores a 35.000 € y tengan 2 hij@s. - Superiores a 40.000 € y tengan 3 o más hij@s.
HELBURUAK: OBJETIVOS	Alarma-aldian eskatutako prestaziorik gabeko kontziliazio-baimenen ondorioz diru-sarreren zati bat jasotzeari utzi dioten familiei laguntzea. Ayudar a las familias que han dejado de percibir parte de sus ingresos debido a los permisos de conciliación sin prestación solicitados durante el período de alarma.
ESLEIPEN MODUA: MODALIDAD CONCESIÓN	Zuzena Directa
KOPURUA: IMPORTE:	30.000 €
PARTIDA:	Zehazteke A concretar
	Onartuta 2020ko apirilaren 24an, 1. aldaketan. Aprobada en la 1. modificación con fecha 24 de abril de 2020

PROGRAMA:	Tokiko ekonomiari laguntzeko dirulaguntzak Subvenciones de apoyo actividad económica local
ONURADUNA: BENEFICIARIO/A	- Jarduera eten duten enpresak (10 langile baino gutxiagokoak eta urteko fakturazioa 7.000-1.000.000€ bitarte) - Fakturazioan %40 arteko murrizketa jasan duten enpresak (urteko fakturazioa 7.000-110.000€ bitarte) - Empresas que han detenido su actividad (plantilla inferior a 10 trabajadores y rango facturación anual 7.000-1.000.000€) - Empresas cuya facturación se ha visto mermada hasta un 40% (rango facturación anual 7.000-110.000€)
HELBURUAK: OBJETIVOS	Alarma-egoeraren ondorioz jarduera etenda izan duten edo fakturazioan murrizketa jasan duten Erreterriako mikroenpresen eta norberaren konturako langileen (autonom@s) ohiko gastuen zati bat ordaindu, baldin eta ohiko prestaziotik kanpo edo Lanbidek autonomoei ematen dien laguntzatik kanpo gelditu badira. Sufragar parte de los gastos ordinarios de microempresas y personas trabajadoras por cuenta propia (autonom@s) de Erreterria que han tenido que parada su actividad o cuya facturación se ha visto mermada por la declaración del estado de alarma y que han quedado fuera de la prestación extraordinaria o de la ayuda a autónomos de Lanbide.
ESLEIPEN MODUA: MODALIDAD CONCESIÓN	Zuzena Directa
KOPURUA: IMPORTE:	1.700.000 €
PARTIDA:	1 0320.471.01.433.00 2020
	Onartuta 2020ko apirilaren 24an, 1. aldaketan. Aprobada en la 1. modificación con fecha 24 de abril de 2020



PROGRAMA:	Mikrokredituen lerroa Linea de Microcréditos
ONURADUNA: BENEFICIARIO/A	ICO eta Eusko Jaurlaritza-Elkargiren lerrotik kanpo gelditu diren Erreterriako enpresa eta norberaren konturako langileak Empresas y personas trabajadoras por cuenta propia de Erreterria, que hayan quedado fuera de las líneas ICO y Gobierno Vasco-Elkargi.
HELBURUAK: OBJETIVOS	Mikrokredituen interesak diruz lagundu COVID19aren krisiaren ondorioz sortutako likidezia arazoak ordaintzeko Financiar los intereses de microcréditos para sufragar los problemas de liquidez surgidos por la crisis del COVID19.
ESLEIPEN MODUA: MODALIDAD CONCESIÓN	Zuzena Directa
KOPURUA: IMPORTE:	50.000 €
PARTIDA:	Zehazteke A concretar
	Onartuta 2020ko apirilaren 24an, 1. aldaketan. Aprobada en la 1. modificación con fecha 24 de abril de 2020

PROGRAMA:	Etxeko zerbitzurako langileentzako ezohiko subsidiarako osagarria Complemento Subsidio extraordinario para empleadas del hogar.
ONURADUNA: BENEFICIARIO/A	Etxeko langile gisa lan egiten duten pertsonak, Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorreko Etxeko Enpleguen Sistema Berezian 2020ko martxoaren 14a baino lehen alta emanda daudenak, lana galdu dutenak edo lanorduak murriztu dituztenak. Personas que trabajen como empleadas de hogar y que estuvieran dadas de alta en el Sistema Especial de Empleos de Hogar del Régimen General de la Seguridad Social antes del 14 de marzo de 2020, que hayan perdido su empleo o hayan visto reducidas sus horas laborales.
HELBURUAK: OBJETIVOS	Subsidio gisa jasotakoa osatu edo subsidioak barne hartzen ez dituen kasuak islatu. Complementar lo percibido por el subsidio o incluir casos no comprendidos por el subsidio.
ESLEIPEN MODUA: MODALIDAD CONCESIÓN	Zuzena Directa
KOPURUA: IMPORTE:	15.000 €
PARTIDA:	Zehazteke A concretar
	Onartuta 2020ko apirilaren 24an, 1. aldaketan. Aprobada en la 1. modificación con fecha 24 de abril de 2020

PROGRAMA:	Tokiko kontsumorako bonuak Bonos consumo local
ONURADUNA: BENEFICIARIO/A	Erreterrian erroldatutako 18-35 urte bitarteko gazteak Jovenes empadronad@s en Erreterria de entre 18-35 años.



HELBURUAK: OBJETIVOS	<ul style="list-style-type: none"> - Gazteenak sentsibilizatzea tokiko saltokietan erostearen inguruan eta ohitura hori sustatzea - Herrian kontsumitzea dinamizatzea -Sensibilizar a la gente más joven sobre la importancia de comprar en el comercio local y promover el hábito. -Dinamizar el consumo en el municipio.
ESLEIPEN MODUA: MODALIDAD CONCESIÓN	Zuzena Directa
KOPURUA: IMPORTE:	462.000 €
PARTIDA:	0320.480.0.431.00
	Onartuta 2020ko apirilaren 24an, 1. aldaketan. Aprobada en la 1. modificación con fecha 24 de abril de 2020
	Modifikazioa onartuta 2020ko abenduaren 01ean, 4. aldaketan. Aprobada la modificación en la 4. modificación con fecha 01 de diciembre de 2020

PROGRAMA:	Hurbileko produktuen salmenta bultzatzea herriko saltokietan. Impulso de la venta de productos de proximidad en comercios locales.
ONURADUNA: BENEFICIARIO/A	Eskualdean ekoiztako kalitatezko elikagaiak dituzten eta ekoizleak berak zuzenean merkaturatzen dituen elikadura-establezimenduak Establecimientos de alimentación que incorporen alimentos de calidad producidos en el ámbito comarcal y que sean comercializados de forma directa por el propio productor
HELBURUAK: OBJETIVOS	Hurbileko produktuen salmenta bultzatzea herriko saltokietan. Impulso de la venta de productos de proximidad en comercios locales.
ESLEIPEN MODUA: MODALIDAD CONCESIÓN	Zuzena Directa
KOPURUA: IMPORTE:	15.000 €
PARTIDA:	Zehazteke A concretar
	Onartuta 2020ko apirilaren 24an, 1. aldaketan. Aprobada en la 1. modificación con fecha 24 de abril de 2020

PROGRAMA:	Langabeak kontratatzeke dirulaguntzak Subvenciones a la Contratación de personas Desempleadas
ONURADUNA: BENEFICIARIO/A	Herriko langabeak Personas desempleadas del municipio.
HELBURUAK: OBJETIVOS	Lanbidek urtebeterako kontratatzen diren herriko langabeak kontratatzeke ematen duen diru-laguntza osatzea. Complementar la subvención de lanbide para la contratación de personas desempleadas del municipio que se contraten para un año.
ESLEIPEN MODUA: MODALIDAD CONCESIÓN	Zuzena Directa
KOPURUA:	100.000 €



IMPORTE:	
PARTIDA:	Zehazteke A concretar
	Onartuta 2020ko apirilaren 24an, 1. aldaketan. Aprobada en la 1. modificación con fecha 24 de abril de 2020

PROGRAMA:	Enplegu-planak. Hirugarren sektoreko entitateetan kontratazioak egiteko zuzkidura handitzea Planes de empleo: Ampliar la dotación para contrataciones en entidades del tercer sector.
ONURADUNA: BENEFICIARIO/A	3. sektoreko enpresak Enpresas del 3er sector.
HELBURUAK: OBJETIVOS	Lanbidek 3. sektoreko enpresei kontratazioetarako emandako diru-laguntza osatzea, entitate hauek sendotu eta enpleguri eutsi diezaioten. Complementar la subvención de Lanbide a la contratación en empresas del 3er sector, con el fin de reforzar estas entidades y apuntalar su empleo.
ESLEIPEN MODUA: MODALIDAD CONCESIÓN	Zuzena Directa
KOPURUA: IMPORTE:	150.000 €
PARTIDA:	Zehazteke A concretar
	Onartuta 2020ko apirilaren 24an, 1. aldaketan. Aprobada en la 1. modificación con fecha 24 de abril de 2020

PROGRAMA:	Covid-19aren eragina gutxitzeko errenteriako merkataritza eta ostalaritza sektoreetan inbertsioak egiteko dirulaguntzak / Ayudas a inversiones en los sectores del comercio y hostelería de errenteria para minimizar el impacto del covid-19
ONURADUNA: BENEFICIARIO/A	Errenteriako txikizkako merkataria eta ostalariei bideratua / Pequeño Comercio y Hostelería de Errenteria.
HELBURUAK: OBJETIVOS	<ul style="list-style-type: none"> - Ekonomia-sektore sentikor eta estrategikoen artean inpakto ekonomikoa minimizatu. - Establezimenduen berrikuntza eta ondorengotza bermatzen lagundu. - Txikizkako jarduera ekonomikoaren iraupena bermatu. - Energia-eraginkortasunaren alde egin, bai instalazioetan zein hornitzaile-zirkuitoei dagokionez. - Teknologia berriak eta konektibitatea aprobetxatu bezeroarekin hurbileko harreman estuagoa sortzeko. - Berdintasun konpromisoak hedatu. - Konsumitzaileen konfidantza indartu (segurtasuna) gazteak erakarriz. / - Minimizar el impacto económico entre los sectores económicos más sensibles y estratégicos. - Ayudar a garantizar la renovación y sucesión de establecimientos. - Garantizar la subsistencia de actividades económicas minoristas. - Fomentar la eficiencia energética, tanto en instalaciones como en



	<p>circuitos de suministro.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Aprovechar las nuevas tecnologías y la conectividad para mantener un contacto más estrecho con la clientela. - Difundir compromisos de igualdad. - Reforzar la confianza (seguridad) de las personas consumidoras.
ESLEIPEN MODUA: MODALIDAD CONCESIÓN	Ez lehiakorra Concurrencia no competitiva.
KOPURUA: IMPORTE:	84.710€
PARTIDA:	1 0320.771.01.433.00 2020
	Onartuta 2020ko urriaren 26an, 3. aldaketan. Aprobada en la 3. modificación con fecha 26 de octubre de 2020

PROGRAMA:	TORREKUA TEKNOLOGIA TEKS
ONURADUNA: BENEFICIARIO/A	TEKS elkarte
HELBURUAK: OBJETIVOS	Teknologia polo bat sortzea, esparru hontan ekintzailtza bultzatzeko. / Crear un polo tecnológico para promover el emprendimiento en este campo.
ESLEIPEN MODUA: MODALIDAD CONCESIÓN	ZUZEN izenduna / DIRECTA nominativa
KOPURUA: IMPORTE:	20.000€
PARTIDA:	0320.481.02.439.00
	Onartuta 2022ko maiatzaren 17an, 7. aldaketan. Aprobada en la 7. modificación con fecha 17 de mayo de 2022



PROGRAMA:	Lokal hutsen mobilizaziorako dirulaguntza / Subvención para la movilización de locales vacíos.
ONURADUNA: BENEFICIARIO/A	Lokalen jabeak eta/edo komertzio, ostalaritza eta zerbitzuak / Dueños de locales y/o comercios, hostelería y servicios.
HELBURUAK: OBJETIVOS	Lokal hutsetan merkataritza, ostalaritza, zerbitzu jardura sustatzea / Fomentar las actividades comerciales, de hostelería y de servicios locales en locales vacíos.
ESLEIPEN MODUA: MODALIDAD CONCESIÓN	Deialdi publikoa / Convocatoria Pública
KOPURUA: IMPORTE:	100.000€
PARTIDA:	0320.771.01.433.00
	Onartuta 2022ko maiatzaren 17an, 7. aldaketan. Aprobada en la 7. modificación con fecha 17 de mayo de 2022

PROGRAMA:	Tokiko kontsumorako bonoak / Bonos consumo local
ONURADUNA: BENEFICIARIO/A	Errenerriako biztanleak / Habitantes de Errenerria
HELBURUAK: OBJETIVOS	Tokiko kontsumoa bultzatzeko bonoak / Bonos para fomentar el consumo local
ESLEIPEN MODUA: MODALIDAD CONCESIÓN	Deialdi publikoa / Convocatoria Pública
KOPURUA: IMPORTE:	450.000€
PARTIDA:	0320.471.01.433.00
	Onartuta 2022ko maiatzaren 17an, 7. aldaketan. Aprobada en la 7. modificación con fecha 17 de mayo de 2022

PROGRAMA:	Digitalizazio eta energia trantsiziorako dirulaguntza deialdia / Subvención para la digitalización y transición energética
ONURADUNA: BENEFICIARIO/A	Komertzio, ostalaritza eta zerbitzuak / Comercio, hostelería y servicios
HELBURUAK: OBJETIVOS	Digitalizazioaren sustapena eta energia aurrezteko helburuarekin negozioan egin daitezkeen hobekuntzak sustatzea. / Impulsar la digitalización y potenciar las posibles mejoras empresariales con el objetivo de ahorrar energía.
ESLEIPEN MODUA: MODALIDAD CONCESIÓN	Deialdi publikoa / Convocatoria Pública
KOPURUA: IMPORTE:	447.000€
PARTIDA:	0320.471.01.433.00
	Onartuta 2022ko maiatzaren 17an, 7. aldaketan. Aprobada en la 7. modificación con fecha 17 de mayo de 2022



DIRU-LAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA: 2020-2023	PLAN ESTRATÉGICO DE SUBVENCIONES: 2020-2023
SAILA / AZPISAILA: IDAZKARITZA (OHARRA: GGBB azpisailaren ardurapera pasatzea baloratzeko. 2020ko aurrekontuan idazkaritzan mantenduko da)	
PROGRAMA:	GUREAK HITZARMENA
ONURADUNA:	GUREAK INKLUZIO FUNDAZIOA
HELBURUAK:	Errenteriako Udalak <u>Pauso Berriak programa okupazionala</u> babestea. Ekimen honek desgaitu intelektualak lan-ingurune arruntetan txerta daitezzen sustatzen du eta horretarako trebatzen ditu. Lan-ingurune horiek pribatuak izan daitezke, baina erakunderen bat hasi da pausoak ematen eremu publikoan ere, adibide moduan Gipuzkoako Foru Aldundiak artxiboko eta zerbitzu orokorretako hiru ofizial plaza, desgaitasun intelektuala duten pertsonentzat gordeak, betetzeko hautapen prozesuaren oinarriak eta deialdia onartu ditu (GAO 2019-09-09). Errenteriako udalak, horrela badagokio, bere momentuan hausnartuko du horrelako ekimenen inguruan, baina edozein kasutan eta horreraino iritsi bitartean egokia ikusten dugu programa okupazional hau diruz laguntzen jarraitzea azken urte hauetan egin dugun moduan. Programa honen bitartez udalak urte batzuk daramatza diruz laguntzen pertsona baten jarduera okupazionala udalean eta esperientzia oso egokia ari da izaten alde guztientzat. 2019an beste bigarren pertsona baten jarduera okupazionala ere txertatu da programa beraren bidez. Uste dugu horrelako ekimenek balio ahal dutela dagokion pertsonak trebatzeko adibidez GFak atera duen deialdiaren modukoetan parte hartu ahal izateko hautagai moduan.
ESLEIPEN MODUA:	Nominatiboa
KOPURUA:	8.000,00 €
PARTIDA:	1.1610.481.01.920.00.



DIRU-LAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA: 2020-2023	PLAN ESTRATÉGICO DE SUBVENCIONES: 2020-2023
SAILA / AZPISAILA: HIRIGINTZA ÁREA / SUBÁREA: URBANISMO	

PROGRAMA 1:	Eraikuntzen ikuskapen teknikoa (EIT) egiteko eta horren ondoriozko obrak burutzeko diru-laguntzak, errenteriako Hirigune historikoan. Subvenciones para la realización de la inspección técnica de edificios (I.T.E.) así como obras derivadas del resultado de dicha inspección en el Centro Histórico de Errenteria.
ONURADUNA: BENEFICIARIO/A	Errenteriako Hirigune historikoko Jabekide Elkargoak izango dira. Comunidades de propietarios del Casco Histórico de Errenteria.
HELBURUAK: OBJETIVOS	Araudiak eskatutako EITak egin eta Hirigune Historikoa Zaharberritzea. Realizar las ITEs requeridas por la normativa vigente e impulsar la rehabilitación del Casco Histórico.
ESLEIPEN MODUA: MODALIDAD CONCESIÓN	Deialdi publikoa Convocatoria pública
KOPURUA: IMPORTE:	100.000 €
PARTIDA:	1.0420.480.01.152.20

PROGRAMA 2:	Hutsik dauden etxebizitzak mobilizatzeko diru-laguntzak Subvenciones para movilizar viviendas vacías
ONURADUNA: BENEFICIARIO/A	Hutsik dauden etxebizitzaren jabeak Propietarios/as de viviendas vacías
HELBURUAK: OBJETIVOS	Diru-laguntzak ematea Alokabidek hutsik dauden etxebizitzetan eskatzen dituen obrak egiteko edota ekipamenduak erosteko. Udalerrian dauden etxebizitza hutsetan alokairu soziala sustatzea da honen helburua, Eusko Jaurlaritzarenak diren Bizigune (Etxebizitza hutsen programa) eta ASAP (Alokairu Segurua, Arrazoizko Prezioa) programen osagarri gisa. Diru-laguntza honen helburua da, baita ere, hutsik dagoen etxebizitzaren energia-eraginkortasunari buruzko ziurtagiria eskuratzea. Concesión de subvenciones para la ejecución de obras y/o la compra de equipamientos exigidos por Alokabide para las viviendas vacías, al objeto de fomentar el alquiler social de las viviendas vacías del municipio; complementando los programas del Gobierno Vasco, Bizigune (Programa de vivienda vacía) y ASAP (Alokairu Segurua, Arrazoizko Prezioa). También serán objeto de subvención la obtención del certificado de eficiencia energética de la vivienda vacía.



ESLEIPEN MODUA: MODALIDAD CONCESIÓN	Lehiaketa publikoa Convocatoria pública
KOPURUA: IMPORTE:	100.000 €
PARTIDA:	1.0430.780.01.152.20



DIRU-LAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA: 2020-2023	PLAN ESTRATÉGICO DE SUBVENCIONES: 2020-2023
SAILA / AZPISAILA: INGURUMENA ÁREA / SUBÁREA: MEDIO AMBIENTE	

PROGRAMA 1:	Errenteriako Udalerrian, Iraunkortasun, Ingurumen eta Landa-Garapenaren inguruan dirua irabaztea xede ez duten erakunde eta elkarteei ekintzak gauzatzeko diru-laguntzak ematea arautzen duen Udal Ordenantza Ordenanza Municipal por la que se regula la concesión de subvenciones a entidades y asociaciones sin ánimo de lucro, que desarrollen actividades en materia de Sostenibilidad, Medio Ambiente y Desarrollo Rural en el municipio de Errenteria
ONURADUNA: BENEFICIARIO/A	Dirua irabaztea xede ez duten erakunde eta elkarteak Entidades y asociaciones sin ánimo de lucro
HELBURUAK: OBJETIVOS	Udalerriaren ingurumeneko egoera hobetzea Mejora en el estado ambiental del municipio
	Gizartearen partehartzea sustatzea Impulsar la participación social
	Sentsibilizazio eta informazio-ekintzen zabalkuntza Extensión de acciones de sensibilización e información
	Bizi-kalitatearen hobekuntza Mejora de la calidad de vida
	Udaleko ingurumen-ekimena osatzea Complementar la acción ambiental municipal
ESLEIPEN MODUA: MODALIDAD CONCESIÓN	Deialdi Publikoa Convocatoria Pública
KOPURUA: IMPORTE:	10.000 €
PARTIDA:	1.0520.481.01.172.00

PROGRAMA 2:	Errenteriako udalerrian, energia eraginkortasuna eta energia berri-erregeneratzaile inguruan ekintzak gauzatzeko diru-laguntzak ematea / Concesión de subvenciones para actuaciones de eficiencia energética, y en energías renovables en el municipio de Errenteria.
ONURADUNA: BENEFICIARIO/A	Errenteriako Udalerrian ekintzak garatuko dituzten pertsona fisiko edo juridikoak / Personas físicas o jurídicas que realicen actuaciones en el ámbito municipal de Errenteria.
HELBURUAK: OBJETIVOS	Klima Aldaketaren aurkako borrokan CO₂ isuriak murriztea / Reducción de emisiones CO ₂ en el municipio, dentro de la lucha contra el cambio climático.
ESLEIPEN MODUA: MODALIDAD CONCESIÓN	Lehiaketa bidezkoa / Concurrencia competitiva.
KOPURUA: IMPORTE:	20.000 €
PARTIDA:	1. 0520.780.01.172.00



PROGRAMA 3:	50/50 proiektua Cristobal Gamón Herri Ikastetxean / Proyecto 50/50 en Cristobal Gamón Herri Ikastetxea
ONURADUNA: BENEFICIARIO/A	Cristobal Gamón Herri Ikastetxea
HELBURUAK: OBJETIVOS	Udal eraikinetan energia eta ur kontsumoa murriztea. Lortzen den aurrezkiaren %50a eraikina kudeatzen duen pertsonari (fisiko edo juridikoa) emango zaio dirua-laguntza zuzen bezala / Reducción de los consumos energéticos y de agua en los edificios municipales, de modo que el 50% del ahorro obtenido será concedido como subvención directa a la persona física o jurídica que gestione el edificio.
ESLEIPEN MODUA: MODALIDAD CONCESIÓN	Esleipen zuzenekoa / Concesión directa.
KOPURUA: IMPORTE:	7.000 €
PARTIDA:	1. 0520.481.01.323.00

PROGRAMA 4:	50/50 proiektua Bizarain Ikastola / Proyecto 50/50 en Bizarain Ikastola
ONURADUNA: BENEFICIARIO/A	Bizarain Ikastola
HELBURUAK: OBJETIVOS	Udal eraikinetan energia eta ur kontsumoa murriztea. Lortzen den aurrezkiaren %50a eraikina kudeatzen duen pertsonari (fisiko edo juridikoa) emango zaio dirua-laguntza zuzen bezala / Reducción de los consumos energéticos y de agua en los edificios municipales, de modo que el 50% del ahorro obtenido será concedido como subvención directa a la persona física o jurídica que gestione el edificio.
ESLEIPEN MODUA: MODALIDAD CONCESIÓN	Esleipen zuzenekoa / Concesión directa.
KOPURUA: IMPORTE:	3.500 €
PARTIDA:	1. 0520.481.02.323.00

PROGRAMA 5:	50/50 proiektua Koldo Mitxelena Herri Ikastetxean / Proyecto 50/50 en Koldo Mitxelena Herri Ikastetxea
ONURADUNA: BENEFICIARIO/A	Koldo Mitxelena Herri Ikastetxea
HELBURUAK: OBJETIVOS	Udal eraikinetan energia eta ur kontsumoa murriztea. Lortzen den aurrezkiaren %50a eraikina kudeatzen duen pertsonari (fisiko edo juridikoa) emango zaio dirua-laguntza zuzen bezala / Reducción de los consumos energéticos y de agua en los edificios municipales, de modo que el 50% del ahorro obtenido será concedido como subvención directa a la persona física o jurídica que gestione el edificio.
ESLEIPEN MODUA:	Esleipen zuzenekoa / Concesión directa.



MODALIDAD CONCESIÓN	
KOPURUA: IMPORTE:	7.000 €
PARTIDA:	1. 0520.481.03.323.00



DIRU-LAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA: 2020-2023	PLAN ESTRATÉGICO DE SUBVENCIONES: 2020-2023
SAILA / AZPISAILA: HEZKUNTZA, GAZTERIA ETA KIROLAK / GAZTERIA ÁREA/ SUBÁREA: EDUCACIÓN, JUVENTUD Y DEPORTES / JUVENTUD	

PROGRAMA:	Gazteria – Aurrikusitako Jarduerak – 2020 – 2021 – 2022 – 2023 Juventud – Actividades previstas - 2020 – 2021 – 2022 - 2023
ONURADUNA: BENEFICIARIO/A	Herriko gazte elkarteak. Salbuespen gisa, Erreteriatik kanpoko gazte elkarteak; betiere, bere jardueraren zati nabarmena herrian bertan burutzen badute edo udalerrarentzat interesgarria bada. Asociaciones juveniles del municipio, y todas aquellas asociaciones de jóvenes de fuera de Erreteria que lleven a cabo una parte importante de su actividad en el municipio o si la misma resulta importante para el mismo.
HELBURUAK: OBJETIVOS	Erreterian kokaturiko eta irabazi-asmorik ez duten elkarteek edo bestelako entitateek antolaturiko gazteria alorreko jarduera programak kofinantzatzeko helburuarekin. Horrez gain, horien helburuek bat etorri beharko dute Udalaren Gazteria azpisailak dituenekin. Cofinanciar programas del ámbito de la juventud ubicados en Erreteria que sean organizados por asociaciones u organismos sin ánimo de lucro. Y sus objetivos tendrán que ser acordes a los que tiene el subárea de Juventud del Ayuntamiento.
ESLEIPEN MODUA: MODALIDAD CONCESIÓN	Deialdi Publikoa Concurso Público
KOPURUA: IMPORTE:	15.000,00 €
PARTIDA:	1.0630.481.01.337.20

PROGRAMA:	Gazteria – Aurrikusi gabeko Jarduerak – 2020 – 2021 – 2022 - 2023 Juventud – Actividades no previstas con anterioridad – 2020 – 2021 – 2022 - 2023
ONURADUNA: BENEFICIARIO/A	Gazteria intereseko jarduerak gauzatzen dituzten Erreterian kokaturiko pertsona fisikoek edo irabazi-asmorik gabeko entitate juridikoek. Salbuespen gisa, Erreteriatik kanpo kokaturiko pertsonak edo entitateek diru-laguntzetarako aukera izan dezakete, jardueraren zati nabarmen bat udalerrian bertan gauzatu edo herriarentzat interesgarria dela jotzen bada. Actividades interesantes en ámbito de la Juventud que sean llevadas a cabo por personas o entidades sin ánimo de lucro situadas en Erreteria. Y también aquellas personas o entidades que lleven a cabo una parte importante de su actividad en el



	municipio o si la misma se considera importante para el mismo.
HELBURUAK: OBJETIVOS	Erreterian kokaturiko eta irabazi-asmorik ez duten elkarteek edo bestelako entitateek antolaturiko gazteria alorreko jarduera programak kofinantzatzeko helburuarekin. Horrez gain, horien helburuek bat etorri beharko dute Udalaren Gazteria azpisailak dituenekin. Cofinanciar programas del ámbito de la juventud que sean organizados por asociaciones u otro tipo de organismos sin ánimo de lucro ubicados en Errenteria. Y sus objetivos tendrán que ser acordes a los que tiene el subárea de Juventud del Ayuntamiento.
ESLEIPEN MODUA: MODALIDAD CONCESIÓN	Deialdi Publikoa Concurso Público
KOPURUA: IMPORTE:	4.000,00 €
PARTIDA:	1.0630.481.01.337.20

PROGRAMA :	Gazteentzako emantzipaziorako dirulaguntzak / Subvenciones para la emancipación de jóvenes
ONURADUNA: BENEFICIARIO/A	Erreterian erroldatuta dauden eta emantzipatu nahi duten eso etxea alokatuz emantzipatu berriak diren gazteak. Jóvenes empadronados en Errenteria que deseen emanciparse o se hayan emancipado.
HELBURUAK: OBJETIVOS	Herriko gazteak emantzipatzeko bidean, etxebizitza alokairua ordaindu ahal izateko diruz laguntzea. Apoyar económicamente a los jóvenes que deseen emanciparse o se hayan emancipado para que puedan pagar el alquiler de la vivienda.
ESLEIPEN MODUA: MODALIDAD CONCESIÓN	Deialdi publikoa Convocatoria pública.
KOPURUA: IMPORTE:	90.000 euro
PARTIDA:	1 0630.481.02.337.20 (8280)



DIRU-LAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA: 2020-2023	PLAN ESTRATÉGICO DE SUBVENCIONES: 2020-2023
SAILA / AZPISAILA: HEZKUNTZA, GAZTERIA ETA KIROLAK / HEZKUNTZA ÁREA/SUBÁREA: EDUCACIÓN, JUVENTUD Y DEPORTES / EDUCACIÓN	
PROGRAMA:	Dirulaguntzak: Ikastetxeak – Aurrikusitako jarduerak – 2020 – 2021 – 2022 - 2023 Subvenciones: Centros escolares – Actividades previstas– 2020 – 2021 – 2022 - 2023
ONURADUNA: BENEFICIARIO/A	Hezkuntza intereseko jarduerak gauzatzen dituzten Erreterian kokaturiko ikastetxeek. Centros escolares ubicados en Errenteria que lleven a cabo actividades de interés educativo.
HELBURUAK: OBJETIVOS	Erreterian kokaturiko ikastetxeek antolaturiko hezkuntza alorreko jarduera programak kofinantatzeko helburuarekin. Horrez gain, horien helburuek bat etorri beharko dute Udalaren Hezkuntza azpisailak dituenekin. Cofinanciar programas de actividades de interés educativo que organicen los centros escolares ubicados en Errenteria Y sus objetivos tendrán que ser acordes a los que tenga la subárea de Educación del Ayuntamiento de Errenteria.
ESLEIPEN MODUA: MODALIDAD CONCESIÓN	Deialdi Publikoa Concurso Público.
KOPURUA: IMPORTE:	20.000,00 €
PARTIDA:	1.0630.471.02.326.20
PROGRAMA:	Dirulaguntzak: IGEAK - 2020 – 2021 – 2022 - 2023 Subvenciones: IGEAK - 2020 – 2021 – 2022 - 2023
ONURADUNA: BENEFICIARIO/A	Hezkuntza intereseko jarduerak gauzatzen dituzten Erreterian kokaturiko Ikasleen Guraso Elkarateek (IGE). Asociaciones de Padres (IGE) situadas en Errenteria que llevan a cabo actividades de interés educativo.
HELBURUAK: OBJETIVOS	Erreterian kokaturiko Ikasleen Guraso Elkarateek (IGE) antolaturiko hezkuntza alorreko jarduera programak kofinantatzeko helburuarekin. Horrez gain, horien helburuek bat etorri beharko dute Udalaren Hezkuntza azpisailak dituenekin. Cofinanciar programas de ámbito educativo organizados por Asociaciones de Padres (IGE) situadas en Errenteria. Y sus objetivos tendrán que ser acordes a los que tenga la subárea de Educación del Ayuntamiento de Errenteria.
ESLEIPEN MODUA: MODALIDAD CONCESIÓN	Deialdi Publikoa Concurso Público
KOPURUA:	16.000,00 €



IMPORTE:	
PARTIDA:	1.0630.471.02.326.20

ONURADUNA: BENEFICIARIO/A	Dirulaguntzak: Hezkuntzan eragiten duten entitateak – 2020 - 2021 - 2022 - 2023 Subvenciones: Entidades impulsoras en el ámbito educativo – 2020 - 2021 - 2022 - 2023
HELBURUAK: OBJETIVOS	Hezkuntza intereseko jarduerak gauzatzen dituzten Erreterian kokaturiko pertsona fisikoek edo irabazi-asmorik gabeko entitate juridikoek. Personas físicas y entidades jurídicas sin ánimo lucrativo situadas en Erreteria que llevan a cabo actividades de interés educativo.
ESLEIPEN MODUA: MODALIDAD CONCESIÓN	Erreterian kokaturik dauden eta hezkuntza alorren eragiten duten irabazi-asmorik gabeko entitateek antolaturiko hezkuntza alorreko jardueretako programak kofinantzatzeko helburuarekin. Horrez gain, horien helburuek bat etorri beharko dute Udalaren Hezkuntza azpisailak dituenekin. Diru-laguntza lerro honetatik kanpo geratuko dira ikastetxeak eta Ikasleen Guraso Elkarteak (IGE), berriazko diru-laguntza lerroak baitituzte. Cofinanciar programas de ámbito educativo organizados por entidades sin ánimo de lucro ubicadas en Erreteria. Y sus objetivos tendrán que ser acordes a los que tenga la subárea de Educación del Ayuntamiento de Erreteria. Y sus objetivos tendrán que ser acordes a los que tenga la subárea de Educación del Ayuntamiento de Erreteria. Los centros escolares y las Asociaciones de Padres (IGE), al contar con ayudas específicas de subvención, quedarán fuera de esta línea.
KOPURUA: IMPORTE:	Deialdi Publikoa Concurso público.
PARTIDA:	4.000,00 €
ONURADUNA: BENEFICIARIO/A	1.0630.471.02.326.20

PROGRAMA:	Hezkuntza – Aurrikusi gabeko Jarduerak – 2020 – 2021 – 2022 - 2023 Educación – Actividades no previstas anteriormente – 2020 – 2021 – 2022 - 2023
ONURADUNA: BENEFICIARIO/A	Hezkuntza intereseko ezohiko jarduerak gauzatzen dituzten Erreterian kokaturiko pertsona fisikoek edo irabazi-asmorik gabeko entitate juridikoek. Salbuespen gisa, Erreteriatik kanpo kokaturiko pertsonak edo entitateek diru-laguntzetarako aukera izan dezakete, jardueraren zati nabarmen bat udalerrian bertan gauzatu edo herriarentzat interesgarria dela jotzen bada. Personas físicas y entidades jurídicas sin ánimo de lucro



	<p>situadas en Errenteria que llevan a cabo actividades excepcionales de interés educativo.</p> <p>Con excepción de todas aquellas entidades o asociaciones sin ánimo de lucro de fuera de Errenteria; siempre que lleven a cabo una parte importante de su actividad en la localidad y que esa actividad sea interesante para la misma.</p>
HELBURUAK: OBJETIVOS	<p>Errenterian kokaturiko eta hezkuntza alorrean eragiten duten irabazi-asmorik gabeko entitateek antolatutako hezkuntza alorreko ezohiko programa edo jarduerak kofinantatzeko helburuarekin. Horrez gain, horien helburuek bat etorri beharko dute Udalaren Hezkuntza azpisailak dituenekin.</p> <p>Cofinanciar programas de ámbito educativo organizados por entidades sin ánimo de lucro ubicadas en Errenteria. Y sus objetivos tendrán que ser acordes a los que tenga la subárea de Educación del Ayuntamiento de Errenteria.</p> <p>Y sus objetivos tendrán que ser acordes a los que tenga la subárea de Educación del Ayuntamiento de Errenteria.</p>
ESLEIPEN MODUA: MODALIDAD CONCESIÓN	Deialdi Publikoa Concurso Público
KOPURUA: IMPORTE:	4.000,00 €
PARTIDA:	1.0630.471.02.326.20

PROGRAMA:	Hezkuntza azpisaileko dirulaguntza zuzenak 2020 – 2021 – 2022 - 2023 Subvenciones directas en la subárea de Educación 2020 – 2021 – 2022 - 2023
ONURADUNA: BENEFICIARIO/A	ORERETA IKASTOLA KOOP. E.
HELBURUAK: OBJETIVOS	Orereta Ikastola Koop. E.-k, ikasturtean zehar, hitzarmenean bertan jasotako eskolaz kanpoko jarduerak antolatzea. Que Orereta Ikastola Koop. E. organice durante el curso escolar actividades extraescolares recogidas en el Convenio.
ESLEIPEN MODUA: MODALIDAD CONCESIÓN	Dirulaguntza zuzena Subvención directa
KOPURUA: IMPORTE:	22.500,00 €
PARTIDA:	1.0630.471.01.326.20

PROGRAMA:	Hezkuntza azpisaileko dirulaguntza zuzenak 2020 – 2021 – 2022 - 2023 Subvenciones directas en la subárea de Educación 2020 – 2021 – 2022 - 2023
